

Erabilera, norberarengandik hasita



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Urteak dira behin eta berriro entzuten dudala ezagutza ez dela aski eta erabilerarako jauzia eman behar dutela gure gazteek. Ados. Egia da gaurko gazte gehienek euren egunerokoan erdarara jotzen dutela gero eta maizago, baina orain gutxi arte euskararen gotorlekutzat hartu izan diren eremuetan ere. Zioak, asko eta askotariakoak. Alde batetik, argi dago gazteek euren sortu behar dutela erabili beharreko mintzaira, inondik inora goitik inposaturikoa ezin dena izan. Bestetik, mendetako egoera diglosikoa dugu, globalizazioak hamaika aldiz biderkatua.

Umeen erreferente nagusiak beti izan dira –eta badira– gurasoak eta, eskolartze-UNETIK aurrera, maisu-andereñoak. Telebista ere bada nolabaiteko erreferentea, ETBk rol garrantzitsua jokatu duela euskarazko marrazki bizidunak eskainiz. Egun, ordea, ehunka telebista daude, eta euskaraz bakarra eta kaskarra, zeinak, gainera, gero eta haurrentzako saio gutxiago ekoizten dituen. Euskara, hortaz, erabat urtuta gelditzen da erdal itsasoan, kalean bezala baita telebistan ere.

Gaztaroan, gurasoek eta eskolak erreferente izateari uzten diote, eta kanpoan bilatzen dira ereduak: kirolariak, artistak... Ez ahazteko moduko beste kontu bat da gazteak mugatu ohi direla bes-

teek bezala jokatzera, oso taldekoiak baitira. Egoera horretan, oso zaila da portaera-aldaketak kanpotik eragitea. Nik ere ez dakit nola lor litekeen, baina badakit nola seguru ezetz.

Ziur aski, dituzten kanpoko erreferente horietako batzuk, gutxi asko, euskaldunak izango dira, futbolariak edo musikariak kasu. Bada, oso eragin positiboa litzateke normalean euren medioetan euskara erabiltzea. Borondate-falta nabaria da sarri. ETBk ez du laguntzen, erdaraz ere egitera behartzen baikitau euskaldunok.

Behin, salatu nuen hemen euskal politikari gehienek utzikeria: ia dena erdaraz idatzi, eta gero beste norbaitek euskaratu. Esan bezala, zorigaitzez, utzikeria bera agerikoa da esparru guztietako profesionalengan ere. Esaterako, zinemetan bi euskarazko film egon berri dira ikusgai. Bada, batean, kredituak erdara hutsez. Ulertezina. Onartezina. Bietan, pertsonaiek euskaraz hitz egiten dutenean, erdarazko azpittuluak; baina ez alderantziz. Hegoaldean, euskaldun gehien-gehienok gaztelania ere ulertzen dugu, Iparraldean frantsesa bezala; ezin uka, berriz, mezu erabat etsigarria igortzen dutela.

Erabilera, bai: norberarengandik hasita. ●

Galdutako ohiturez



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Claudio Magrisen *Mugak* saiakera laburra berriz irakurtzen ari nintzela topo egin dut haren profetia batekin: “Gure etorkizunean mamu baten itzala ageri da: hainbat eta hainbat gizon-emakumek, oinazeak eta goseak akuilatuta, beren sustraiak, beren mugak bertan utzi eta beste herrietara alde egingo dute, gorrotoa eta beldurra sortaraziz, eta ondorioz hesi gehiago altzaraziko dira (...) halakoa izango da, etorkizun hurbilean, Europaren existentzia edo haren duintasuna behintzat”.

1995ean argitaratu ziren Magrisen arestiko hitzok, Koldo Biguriren itzul-

penari esker. Jaioterriko *frontiera*-tik ari zaigu testuan Triesteko idazlea, eta, bidenabar, Europako fronte(r)ez. Gutako inor gutxi i(ra)garriko zuen Berlingo Harresia *erorarazi* zen lekuan beste zenbait eraikiko zirela hurrengo hamarkadetan. Datuak, baina, ez gaitu toki onean uzten: hamaika murrerik omen zeuden zutik Berlingoaren ondotik; 70 baino gehiago omen daude egun. Hauteskundeek ere erretratatzeko gaituzte han eta hemen.

Nietzscheren galdera batekin bukatu zuen saiakera Magrisek: “Non senti naiten teke etxean?”. ●